

Biztanleria nabarmen hazi da eta lurraldean metatzeko joerari eutsi dio

Egunotan biztanleria datu berriak argitaratu dituzte estatistika erakundeek, urte hasieran ohikoa duten moduan. Azken datuen arabera Euskal Herriak 3.170.891 biztanle ditu (2019/01/01), eta azken urtean hamarkadako biztanleriaren hazkunde handiena izan du (+%0,59). Horrela, urtebete lehenago baino 18.673 biztanle gehiago ditu. Herrialde guztiek irabazi dute biztanleria Zuberoak izan ezik. Populazioaren %82,6ak hiriguneetan eta bitarteko hiriguneetan du bizilekua. Bestela esanda, biztanleriaren %82,6a lurraldearen %15,1ean bizi da.

Azken urteotan Euskal Herriko hazkunde demografikoa indartzen ari da. Ipar Euskal Herriak 2020 urtean zehar 310.000 biztanleen langa gaudituko du. Azken bi urteotan indar bereziarekin hazi bada ere, hazkunde erritmo bizia aspaldikoa du. INSEEko datu ofizialen arabera (2020) Ipar Euskal Herrian 309.673 herritarrek dute bizilekua. Halaber, 2019an Hego Euskal Herriak biztanleria bolumena handitu egin du (+15.346)¹. Izan ere, INEk aurreikusitakoaren kontra, 2012/15 epealdiko Hego Euskal Herriko biztanleriaren galera murriztaren ondoren jaiotza tasa apala eta zahartzearen ondoriozko heriotza tasa altua izan arren laugarren urtez egin du gora herritarren bolumenak, Espainiar estatutik kanpo jaiotako etorkin fluxuei esker. Alde horretatik, euskal herritarren jatorri aniztasuna handitzen ari da ([ikus 2019/06/27ko prentsa oharra: "Euskal Herria, harrera herri bat, bi errealitate"](#)).

Joera nagusiak alde batera, lurralde mailako joerei erreparatzea lagungarri izan daiteke etorkizuneko Euskal Herria egituratu dezaketzen zenbait fenomeno ulertzeko. Egun euskal herritarren %55,3a hiriguneetan eta %27,3a bitarteko hiriguneetan bizi da. Gainontzeko %17,4a, aldiz, landa eremuan bizi da. Horrela ondorioztatzen da lurraldea hirutan banatzen duen (hirigunea, bitarteko hirigunea eta landa eremua) Europako Batasunaren azken DEGURBA sailkapenari so. 2019 urtean hiru eremuek herritarrek bereganatu arren, azken bi urteetan hiriguneen hazkunde demografikoa berrindartu egin da. Hirigune eta bitarteko hiriguneen pisuagatik Euskal Herriak Herbeheretakoaren antzeko lurralde egitura du, kasu bietan, biztanleriaren %17-18ak baino ez du bizilekua landa eremuan. Munduan ez dira asko antzerako populazioaren geografia duten herrialdeak.

Nafarroa Garaiko mapa lokal berria indarrean denetik Euskal Herria 47 eskualde nagusitan banatzen da. Azken urtean biztanle kopuruak behera egin du horietatik hamar eskualdetan, bereziki Pirinioetan (-%2,3), Arabako Mendialdean (-%0,4) edota Xiberoan (-%0,3). Bitartean, Salbaterraldeak edota Hazparneko lurraldeak biztanle kopurua emendatu dute. Unean uneko joerez harago, azken hamarkadako biztanleriaren bilakaerak euskal geografiaren desoreka garrantzitsuak marrazten ditu.


- Ipar Euskal Herriko kostan populazio hazkundeak bere horretan jarraitzen du, bere hedadura kostatik gero eta barnealderago gorpuztuz: Errobi Aturri, Bidaxune, Hazparne, Errobi eta Hego Lapurdiko populazioa Euskal Kostaldea-Aturrikoa (+%6a 2009/19 epean) baino gehiago hazi da. Bien bitartean, Xiberoak lehen mundu gerraz geroztiko despulazioan murgilduta jarraitzen du, azken hamarkadan biztanleriaren %4,6a galtzeraino. Xiberoaren bidetik, Salbaterraldeak eta Oloroaldeak ere biztanleria galdu dute 2009/19 epean.
- Nafarroako Pirinioetako datuak egoera larria marrazten ari dira, azken hamarkadan biztanleen %14,2a galdu eta gero. Zangozaldea, Erdialdea eta Jurrandi eskualdeen biztanleria galerek ere lurralde gabeziak uzten dituzte agerian. Ez dira Nafarroa Garaian biztanleria galdu duten eskualde bakarrak, Lizarraldeko Erriberak, Izarbeibarrek, Sakanak, Bidasoak, Goi Erriberak eta Larraun-Leitzaraneak ere biztanleria galdu baitute, apalki bada ere. Bitartean, Arga eskualdearen (Iruñerria + Haranak) herritarrek metatzeko gaitasuna indarberitzen ari da. Aurrepirinioek ere handitu egin dute biztanleria oro har, baina eskualdearen iparraldean biztanleria galera nabarmena da. Erriberak ere bolumenari eutsi dio.

¹ Gaur gaurkoz, Hego EHrako azken datuak 2019 urteari dagozkio, eta Ipar EHkoak, 2020 urteari.

- c) Araba hegoaldeko eskualdeak populazioa eutsi ezinik dabilta. Arabako Mendialdea despopulazioaren ikur bihurtu da eta 2009/19 epealdian bertako biztanleria %9,0a gutxitu da. Trebiñuren despopulazioak indar apalagoa du, baina halere biztanleria galera indartsua da (-%5,8). Errioxa Arabarreko herritarren bolumenak ere apaltzeko joera adierazi du (-%0,8), etorkin fluxu esanguratsua bereganatu arren. Arabako Lautada (+%6,9) eta Gorbeia Inguruak (+%4,7) herrialdeko hazkunde demografikoan buru dira.
- d) Bizkaian Lea-Artibaik herritarren galera murrizta baina egonkorra du aspalditik, eta hala izan da azken hamarkadan ere (-%2,3). Bilbo Handiak ere herritarrak galdu ditu azken hamarkadan (-%1,2), nahiz eta azken biurtekoan joera horri buelta ematen hasia den. Ostera, Plentzia-Mungiak (+%11), Arratia-Nerbioik (+%3,6), Durangaldeak (+%3,2) eta Enkartzioiek (+%2,8) biztanleria kopurua handitu egin dute.

- Azken hamarkadako Euskal Herriko udalerrien biztanleria bilakaeraren bisore interaktiboa ikusteko egin klik [hemen](#).
- Euskal Herriko eskualde bakoitzari buruzko diagnostiko xeheagoa nahi izanez gero, [egin klik hemen](#).

BIZTANLERIAREN HAZKUNDE-TASA 2009/19 EPEALDIAN. EUSKAL HERRIKO ESKUALDEAK.



BIZTANLERIA BILAKAERAREN DATU NAGUSIAK. 2019 URTEA.

	Kopuru gordina	Hazkunde-tasa	
	2019	2009/19	2018/19
HAZKUNDE HANDIENAK 2009/19 EPEALDIAN			
Bidaxuneko lurraldea	6.092	19,5	1,4
Errobi	29.826	18,1	0,8
Valles <> Haranak	13.200	16,6	1,3
Hego Lapurdi	68.002	15,8	1,1
Errobi Aturri	19.479	14,6	0,7
Hazparneko lurraldea	15.257	13,1	1,8
Plentzia-Mungia	58.706	11,0	1,1
Pamplona<>Iruñerria	356.862	8,1	1,3
Arabako Lautada	268.614	6,9	1,0
Euskal Kostaldea-Aturri	128.826	5,9	1,5
Urola-Kostaldea	76.098	5,5	0,5
Tolosaldea	49.542	5,1	0,5
Garazi Baigorri	12.669	5,0	-0,1
Gorbeia Inguruak	8.772	4,7	0,2
Iholdi Oztibarre	3.714	4,4	-0,2
DESPOPULAZIO HANDIENAK 2009/19 EPEALDIAN			
Pirinioak	5.010	-14,2	-2,3
Arabako Mendialdea	2.899	-9,0	-0,4
Zangozaldea	9.445	-6,5	-0,2
Trebiñu	1.848	-5,8	0,1
Xiberoa	12.580	-4,6	-0,3
Erdialdea	26.174	-3,8	0,4
Jurramendi	31.674	-3,2	0,5
Salbaterraldea	66	-2,9	4,8
Lizarraldeko Erribera	27.222	-2,6	0,9
Oloroealdea	534	-2,6	-0,6
Izarbeibar	13.183	-2,3	0,7
Lea Artibai	26.072	-2,3	0,5
Sakana	20.189	-2,2	-0,0
Bidasoa	22.302	-2,1	0,1
Goi Erribera	25.576	-1,8	0,1
EUSKAL GEOGRAFIA DEGURBA ARABERA			
Hirigunea	1.753.314	2,1	0,7
Bitarteko hirigunea	866.424	3,7	0,5
Landa eremua	551.153	3,7	0,5
HERRIALDEEN ARABERA			
Araba	333.397	5,6	0,8
Bizkaia	1.152.934	-0,0	0,3
Gipuzkoa	723.576	2,5	0,4
Lapurdi	260.190	10,8	1,3
Nafarroa Beherea	31.831	6,6	0,1
Nafarroa Garaia	654.214	3,7	1,0
Zuberoa	14.749	-3,9	-0,2
EUSKAL HERRIA	3.170.891	2,8	0,6

Iturriak: EUSTAT, INE, INSEE eta EUSKALGEO. GAINDEGIA